

AURRERAKUNTZAREN AURRELARIA

J. Conrad



Jatorrizko Izenburua: An Outpost of Progress
Itzulpena: X. Galarreta

Lege-Gordailua: SS-1120/04

Bi gizon arduratzen ziren faktoriaz. Kayerts –nagusia– baxua eta lodikotea zen; Carlier –laguntzailea–, berriz, altua, buru-handikoa eta bizkar zabalekoa zen (hanka luze eta argaletan sostengatzen zitzaion gorputza). Sierra Leoneko gizaseme beltz batek biribiltzen zuen lantaldea; eta hark zioenez, Henry Price zuen izena. Dena den, arrazoiren batengatik, « Makola » izenarekin deitzen zioten ibaibeheretarrek, eta herrialdean zehar eginak zituen harat-honaldietan beti izan zen Makola izenarekin ezaguna. Ingeleseztan eta frantseseztan egiten zuen halako ahoskera kantari batekin; oso idazkera ederra zeukan; eta bazekien kontularitzari buruz; eta bere bihotzaren barru-barruan, espiritu gaiztoekiko sineskeriak zituen. Haren emaztea Luandako emakume beltza zen, handi-handia eta txit zalapartaria. Beraien hiru semeak etxeko ate aurrean iraulka aritzen ziren, eguzkitan. Makolak, goibel eta hitz gutxiko, bi gizon zuriak mesprezatzen zituen. Belar eiharrez estalitako burdinezko biltegi txikia bere ardurapean zeukan (txirtxiluei, kotoizko ehunei, gorri koloreko zapiei eta bertan pilatzen ziren gainerako salgaiei zegokien kontularitza-lana oso ondo zeramala uste zuen). Makolaren etxolaz eta biltegiak gain, faktoria altxatzen zeneko agerrunean ere bazegoen eraikin handi bat. Trebetasunez egina zegoen, kanaberazkoa zen eta galeria moduko bat

inguratzen zitzairen lau aldeei. Hiru gela zituen. Erdikoa egongela zen, eta bi mahai kaxkar eta aulki banaka batzuk besterik ez zegoen barruan. Beste bi gelak gizon zurien logelak ziren. Altzaritzat, ohe eta eltxosare bana. Zolua, oholtzarrez egina, gizon zurienak ziren gauzaz beterik zegoen: erdi irekitako eta hustutako kaxak, hiriko arropak, bota zaharrak; zikin-zikin edota puska-puska eginda zeuden gauza guzti haiek pilatuz zihoazen gizon arloteen inguruan, nola inork ere ez zekiela. Eraikin honetatik ez oso urrun, beste *egonleku* bat zegoen. Bertan, perpendikulartasuna ordurako hondaturik zeukan gurutzearen azpian, gauza guzti horien hastapenak ezagutu zituen gizona lur azpian zetzan –aurrerakuntzaren aurrerakada hura asmatu eta zaindu zuen gizon berbera–. Bere herrian, arrakastarik gabeko pintorea izan zen, zeinak, ospearen atzetik gosez eta alferrik ibili ostean, goi mailako babesle batzuei esker lortu baitzuen haraino iristea. Faktoriako lehen nagusia izan zen.

Etxe amaitu berrian Makolak ikusi zuen artista nola hiltzen zen sukarrak jota, haren betiko jarrera hotzarekin: “Holaxe, ba, gertatu behar zen”. Gero, bolada batez, familiarekin, kontularitzari buruzko liburuekin eta ekuadoreaz hegoalderantz dauden lurak gobernatzen dituen Izpiritu Gaiztoarekin bizi izan zen bakardade osoan. Oso harreman onak zituen bere jainkoarekin. Agian, gizon zuri gehiagorekin jolasteko asmoz hasiko zen bere jainkoa gurtzen. Edonola ere, Merkataritza Gune Handiaren Zuzendaria iritsi zenean –

teilatutxo batez estalitako sardina kaxa itzelezkoa zirudien bapore txikian heldu zen-, faktoria tankera onean aurkitu zuen, eta Makola beti bezain lasai eta bizkorra. Zuzendariak lehenbiziko agentearen hilobian gurutzea tente jarrarazi zuen eta Kayerts izendatu zuen lehen arduradun. Carlier, berriz, bigarren arduradun izendatu zuen. Zuzendaria gizon anker eta aria onekoa zen. Batzuetan, ia-ia inor ohartzen ez zela, umore goibel batez baliatu ohi zen. Kayertsi eta Carlierri hitzaldia bota zien, faktoriaren itxura prometagarria azpimarratuz. Hirurehun bat miliara geratzen zen hurrengo merkataritza-gunerik hurbilena. Parada ezin hobea zen hura, besteen gaintik nabarmentzeko eta ehuneko bikainak lortzeko. Halako izendapena mesede handia omen zen bientzat. Kayerts negar egiteko zorian egon zen, hainbesteko ontasunak zirela eta. Ahalik eta hobekien egingo zuela esan zuen, hain balakagarria zen konfiantzari ez ziola uko egingo, eta abar. Kayertsek Telegrafo-Etxeko Administrazioan lan egina zuen eta bazekien bere burua behar legez adierazten. Carlier ez zegoen hain harri eta zur (zaldieriako ofiziala izana zen potentzia europar ugarik babestutako armada batean). Komisionik baldin bazegoen, hainbat hobe; eta ibaiari, basoei eta sastraka usuari begiratu zien jeinu txarreko so batez, ahopetik esanez: “Laster ikusiko diagu”.

Hurrengo egunean, kotoizko merkantzia eta hornidura kaxa batzuk lehorrean utzi eta gero, sardina katxa itxurako baporeak alde egin zuen eta

sei hilabete igaro arte ez zen itzuliko. Ontziko gainaldean, Zuzendariak agur esan zien bi agenteei, eta hauek agurra itzuli zioten kapeluekin. Eta Koartel Nagusirantz abiaturik, faktoriako langile zahar bati esan zion:

–Begira bi pepelerdo horiei. Nire herrian burutik jota egon behar dituk horrelako ergelak bidaltzeko. Esan zieat baratze bat egiteko, hesi berriak altxatzeko eta kai flotagarria eraikitzeko. Apostu egingo nitek ezertxo ere ez dutela egingo! Ez ditek jakingo nondik hasi. Beti pentsatu izan diat horrelako morroiak primeran egokitzen direla guzti honekin!

–Hemen ikasiko dute euren nortasuna zorrozten –esan zuen gizon trebatuak irri lasai batekin.

–Nolanahi ere, sei hilabetez ez dizkiat ikusi beharko –erantzun zion Zuzendariak.

Lehorrean geratutako bi gizonen baporeari begiz jarraitu zioten, ontzia ibaiko bihurtune batean galdu zen arte; gero, bazterreko aldapa elkarren besotik helduta igoz, faktoriara itzuli ziren. Herrialde zabal eta goibel hartan denbora gutxi zeramaten eta ordura arte beti bizi izanak ziren gizon zuriz inguratuta, nagusien begiradapean eta zuzendaritzapean. Orain, berriz, inguruan zeuzkaten gauzek ezer gutxi esaten zieten, bakar-bakarrik sentitu ziren, oihanaren aurrean babesik

gabe. Bestalde, oihanaren barruan ezkututzen zen bizi harrigarria zela eta, oihana gero eta misteriotsuagoa, ulertezinagoa egiten zitzairen. Bi gizabanako garrantzi gabe eta zeharo ezgauza ziren, zeinen existentzia soil-soilik baitzen posible jende zibilizatuaren gizartearen barruan. Gizon gutxik dakite ezen euren bizitzak, euren nortasunen mamia, euren gaitasunak eta euren ausardia, bizi direneko giroak ematen dien segurtasun-adierazpena baino ez direla. Ausardia, konfiantza, jarrera zintzoak, hunkipenak eta bizi-legeak, pentsamendu guztiak –bai handiak bai txikiak– ez dira gizabanakoarenak, jendetzaarenak baizik: erakundeetan, moralean, poliziaren indarrean eta iritzi publikoan itsu-itsuan sinesten duen jendetzaarenak. Baina basatasun huts eta krudel horren erdian egoteak, izadiarekin eta gizaki primitiboekin etengabe harremanetan egoteak ustekabeko kezka sakonak eragiten ditu bihotz barruan. Gure herriko jendearengandik urrun egotearen sentazioari ezohikotasunaren sentazioa gaineratzen zaio. Gainera, nor bere pentsamenduekin eta sentazioekin bizitzeak eragiten duen bakardadea nabarmenegia da, eta eguneroko bizitzari uko egiteak hondatu egiten du pertsona bakoitzak bere buruan duen ziurtasuna. Gauza lainotsu, kontrolgabe eta nazkagarrien aurrean sena baino ez dago, eta horren ondorioz, intrusio asaldagarriek irudimena berotu eta zain zibilizatuak neurtzen dituzte, ergelenak nahiz jakintsuenak.

Kayerts eta Carlier besotik helduta zihoazen, bata besteari pegatuta, hurrek iluntasunean egiten duten bezala; biek arrisku-sentsazio bera zeukaten (ez zen sentsazio desatsegina, nahiz beraiek asmatua izan, segurki). Elkarri kontu-kontari zihoazen.

–Zinez ederrak dituk gure faktoriaren inguruak –esan zuen aldarte onez Kayertsek, inguruko paisai ederra goraiatuz. Gero, hilobiaren ondotik pasatu ziren.

–Hori bai gizarajoa! –esan zuen Kayertsek.

–Sukarrak jota hil zuan, ezta? –esan zuen Carlierrek bertan geldituz.

–Bai –erantzun zion Kayertsek haserre–. Entzun dudanez, txo hau ez zuan inoiz kontuz ibiltzen eguzki-izpiekin. Denek ziotek hemengo eguraldia ez dela gure aberrikoa baino txarragoa, eguzki-izpiekin kontuz ibiliz gero. Entzun al didak, Carlier? Ni nauk toki honetako nagusia eta eguzki-izpiekin kontuz ibiltzeko agintzen diat!

Bere nagusitasuna txantxetan bezala indartu bazuen ere, bera oso seriotan ari zen. Carlier lurperatu eta bakarrik gelditzeko ideiak dardarka jartzen baitzuen. Ustekabean zera sentitu zuen: Carlier hura, hantxe, Afrikaren erdian, anaia baino askozaz beharrezkoagoa zitziola. Carlierrek, bera

ere txantxetan, militarki agurtu eta kemenez esan zuen:

–Zure aginduak beteko ditut, nagusi!–. Gero, barreari eman, Kayertsen bizkarrean zapladatxo batzuk jo eta oihu egin zuen: –Bizitzari utziko zioagu goxo-goxo iragaten! Eserita geldituko gaituk, basatiek ekarriko diguten boliaren zain. Herrialde honek, hala eta guztiz ere, badik alde onik.

Biek barreari eman zioten zalaparta handiz. Carlierrek, ordea, zera pentsatzen zuen bere artean: “Kayerts gizarajoa, zeinen lodikotea eta minbera den. Izugarria izango lukek, bera hemen lurperatu behar izatea. Begirunea zioat gizon honi...”. Etxeko galeriara heldu baino lehen, “ene adiskide maitea” esaten zioten elkarri.

Lehenbiziko egunean su eta gar aritu ziren lanean, eta denbora piloa eman zuten mailuarekin eta iltzeekin, edota gortinak prestatzen (etxea eder eta bizigarri jarri nahi zuten, bizitza berrian ahalik eta erosoen egoteko).

Tamalez, guztiz ezinezkoa izan zitzaien. Halako egoera batetik onik ateratzea ez baita bat ere erraza, nahiz arazo materialak soilik izan tartean; izan ere, jendeak uste baino espiritu-baretasun handiagoa eta kemen bipilagoa eskatzen baititu tamaina horretako zereginak. Bi izaki haiek baino gauza ezgauzagarrik ezin izan beste inor.

Gizartea, ez arrazoi sentiberengatik, baizik-eta bere betebehar misteriotsuengatik, bi gizon haietaz arduratu zen ordura arte; pentsamendu askeetatik eta ohitura zaharretatik alde egin zezakeen edozer debekatu zien. Bai eta heriotz-zigorraren mehatxupean debekatu ere. Bizirik irauteko, makinak bezalakoak izan beharko ziren. Horregatik, belarri atzean jarritako lapitzak edota eskumuturretan urrezko galoiak beti eramaten zituzten gizonen ardura suspargarritik kanpo, urte luzeak atxilotuta igaro ostean askatu berriak izan diren presoak bezalakoak ziren. Beren gaitasunak nola erabili ez zekiten, ez bata ez bestea baitzen – ohiturarik ezagatik– euren kabuz pentsatzeko gai.

Bi hilabete igaro eta gero, Kayertsek askotan esaten zuen “Meliengatik izango ez balitz, ez nindukek hemen geldituko”. Melie haren alaba zen. Telegrafo-Etxeko Administrazioan egiten zuen lana utzi zuen –nahiz-eta lantoki hartan hamazazpi urtez guztiz zoriontsua izan–, alabarentzako ezkonsari hoberik lortzeko pozez. Emaztea hilik zegoen, eta arrebek hazi zioten haurra. Kaleak, zoladurak, kafetegiak eta aspaldiko lagunak minez gogoratzen zituen; egunero ikustera ohituta zegoen gauzak –gubernuko bulegari-pentsamendu soil, aspergarri eta lasaigarriak–; solasaldiak, ezinikusi txikiak, azalezko harremanak eta gubernuko bulegari-txistek. “Koinatu hobea izan banu”, esan ohi zuen Carlierrek, “kemen handiagoko koinatua izan banu, ni ez nindukek hemen egongo”. Armada utzi zuen eta senideentzat hain jasanezin bihurtu

zen (guztiz alfer eta aurpegi gogorra bilakatu baitzen), ezen, koinatu etsi batek itzelezko ahaleginak egin baitzituen bigarren mailako agenteizendapena eman ziezaioten. Sosik gabe zegoenez, ogibide hura onartu behar izan zuen, familiarengandik ezer gehiagorik aterako ez zuela ulertu bezain laster. Kayertsek bezala, berak ere faltan nabaritzen zuen betiko bizimodua. Sableek eta ezproinek tintin egiten zuteneko arratsaldeak, kuarteleko txantxak, goarnizio-hirietako neskatoak gogoratzen zituen nostalgia handiz; horrez gain, erre eginda zegoen. Gauza guztiak gaizki atera zaizkien gizon horietakoa zen. Horrek batzuetan triste jartzen zuen. Bi gizonak, hala ere, ondo ulertzen zioten elkarri, eta ergelkeriaren eta alferkeriaren konpainia sufritzen zuten elkarrekin. Ez zuten ezer egiten, ezertxo ere ez, eta nagikeria hartaz gozaten ziren (horretarako ordaintzen zieten). Egunak joan-egunak etorri, nolabaiteko begikotasuna sentitzera iritsi ziren bata bestearekiko.

Gela handi batean bizi ziren, gizon itsuak bailiran, aurre-aurrean zeuzkaten gauzez baino jakitun ez zirelarik (eta horietaz ere, ez jakitunegi); gauzen itxura orokorrak, ordea, ihes egiten zien. Ibaia, basoa, biziz beteriko oihana... hustasun itzelak baino ez ziren haientzat. Eguzki-argi distiratsuak ere ez zien gauza handirik esaten. Gauzak haien aurrean agertu eta desagertzen ziren elkarrekiko loturarik edo helbururik gabe. Ibaia bazirudien ustekabeen sortzen zela eta existitzen ez

zen nonbaiterantz abiatzen zela. Ibaia bazihoan hustasun batean zehar isurika. Hustasun horretatik, noizean behin, kanoak agertzen ziren, eta kanoekin batera, faktoriako patioan pilatzen ziren gizonak, eskuetan lantzak zeramatzatela. Biluzik ibiltzen ziren, beltz dizdiratsu kolorekoak ziren eta elurra bezain zuriak ziren maskorrak erabiltzen zituzten edergarri modura, baita brontzezko lepoko dirdaitsuak ere. Gorputz-atal perfektuak zituzten. Zarata zakar eta motelxeak ateratzen zituzten hitz egitean, dotorezia handiz ibiltzen ziren eta begi nekatu eta harrituekin begirada azkar eta basatiak botatzen zituzten. Azkenik, gerlariak kokoriko jartzen ziren, galeriaren aurrean launaka, lerro luzeak osatuz. Bien bitartean, buruzagiek orduak eta orduak ematen zituzten Makolarekin eztabaidatzen, elefante betortz bakar batengatik. Kayerts bere besaulkian esertzen zen, tratu haietaz tutik ulertu gabe. Eta bere begi urdinekin denei behatu eta gero, Carlierri deitzen zion: “Begira, begira morroi horri! eta ezkerrean dagoenari. Ikusi al duk noizbait halako aurpegirik? Hori bai basati xelebrea!”

Carlierrek, urrezko pipa motz batetik pafaka ari zela, gorputza habaildu, bibotea okertu eta, gerlariei zorrotz begiratu, esaten zion: “Bai animalia ederrak. Betortzik ekarri al dute? Bai? Bazuan garaia. Begira morroi horrek dituen giharreak, hirugarrena amaieratik hasita. Ez zitzaidaan bat ere gustatuko horren ukabilkada sudurrean hartzea. Beso sendoak dizkik, bai, baina

hankek ez ziotek ezertarako balio belaunetik behera. Ezin izango nitek zalduneriako soldatu zintzo bihurtu”. Eta hurrenik, bere hankei atsegin handiz begiratu, beti amaitzen zuen esanez: “Bo! Kiratsu halakoak! Makola! Eraman ezak saldoa fetitxeraino (fetitxea deitzen zieten faktoria guztietako biltegiei, agian zibilizazioaren espiritua bertan bizi zelako) eta emaizkiek hantxe gordetzen dituan purtzilkeria horietariko batzuk. Biltegia betortzez beterik ikusi nahi diat, eta ez piltzarrez”.

Kayertsek baietz esan zuen buruarekin:

“Bai, bai! Alde hemendik eta amaitu berriketa beste nonbait, Makola jauna. Geroago joango nauk ni betortzak pisatzera. Kontuz ibili, badakik”. Gero, lagunarengana bueltaturik: “Hau ibaian behera bizi den leinua duk. Gaizki oroitzen ez banaiz, behin edo bitan azaldu izan dituk hemendik. Entzuten, zer-nolako zalaparta? Txakurherri honetan zenbat soportatu behar! Burua lehertzeak zeukat”.

Guztiz errentagarriak ziren horrelako bisitaldiak, bakanak izan arren. Egun luzeetan patioa hutsik ikusiko zuten merkataritza eta aurrerakuntzaren bi aurrelariok, goitik behera erortzen zen eguzkiargi dirdiratsuak estalita biak. Goiko bazterrean ibaiak jarraitzen zuen bere betiko diztiraz eta patxadaz jaisten. Han, korrontearen erdian, hipopotamoek eta krokodiloek eguzkia hartzen zuten elkarren ondoan. Eta alde guztietan,

merkataritza-gunea altxatzen zeneko soilguneari inguratuz, itzelezko basoek handitasun mutu hartako isiltasun elelderrean zirauten, basoak non bizi harrigarriaren zailtasun zorigabeak ezkutatzen baitira. Bi gizonak ez zuten hartaz tutik ere ulertzen, eta baporea etortzeko oraindik falta ziren egunez aparte, ez ziren beste ezertaz arduratzen. Liburu erdi puskatu batzuk utzi zituen Carlierren eta Kayertsen aitzindariak. Eleberri-puska haiek bildu eta, antzekorik lehenago inoiz irakurrita ez zeukatenez, oso harriturik eta jostaturik heldu zioten irakurketari. Gero, zenbait egunez, pertsonaiei eta bilbeei buruzko eztabaida luze eta ergelak izaten zituzten. Afrika erdian Richelieu eta D'Artagnan, Belatz-Begi eta Aita Goriot eta beste asko ezagutu zituzten. Irudizko pertsonaiak euren solasaldien gai bihurtu ziren, bizirik egongo ziren adiskideak balira bezala. Pertsonaien birtuteak gutxiesten zituzten, susmagarritzat jotzen zituzten, eta haien adorea zalantzan jartzen zuten. Hilketa-eleberriek haserre jartzen zituzten biak; pasarte samurrek eta bihotz-erdiragarriek, ordea, hunkipen sakonak eragiten zizkieten. Carlierrek eztarria garbitu eta soldadu-ahotsarekin esan ohi zuen: “Zentzugabea duk, erabat!” Kayertsek, begi biribilak malkoz beterik eta masail lodiak dardarka, burusoila igortzi eta baieztatzen zuen: “Liburu bikaina. Horrelako gizaseme azkarrak munduan ibiltzen zirenik ideiarik ez neukaan”. Hiriburuko egunkari baten ale zahar batzuk ere aurkitu zituzten. “Gure zabalkuntza nazionala” aipatzen zuten halako hizkera harroaz. Zibilizazioak berekin

dakartzan eskubide eta betebeharrei buruz hitz egiten zuten, eta baita lan zibilizagarriak daukan alde sakratuari buruz ere, eta jarraian lurreko bazterrik ezkutuenetaraino argia, fedea eta markataritza eramaten zituzten gizonak gorai patzen zituzten. Carlierrek eta Kayertsek egunkariak irakurri, haiei buruz gogoeta egin eta aurrerantzean bere buruei axola handixeagoa ematen hasi ziren. Arratsalde batean, Carlierrek esan zuen eskua mugituz:

–Ehun urte barru, agian, hemen bertan altxatuko duk hiri bat. Kaiak, biltegiak eta txosnak, eta... eta... agian bilar-aretoak. Zibilizazioa, motel, birtutea, eta abar. Eta jendeak jakingo dik bi gizaseme jator –Kayerts eta Carlier– toki honetan bizi izandako lehen gizon zibilizatuak izan zirela!

Kayertsek baietz erantzun zion buruarekin.

–Bai, pozgarria duk horretaz pentsatzea.

Haien aurrelaria izan zena erabat ahaztuta zeukaten. Egun batean, ordea, Carlier etxetik goiz atera eta gurutzea zuzen jarri zuen.

–Zeharka begiratu behar nioan hortik pasatzen nintzen bakoitzean –adierazi zion Carlierri goizeko kafea hartzen ari ziren bitartean–. Zeharka begiratu behar nioan oso okerturik zegoelako. Horregatik, tente-tente jarri diat. Ondo tente jarri ere. Egon ziur! Bi eskuekin egin diat indar bi

muturrei helduta. Ez duk bat ere mugituko orain. Ederki egin diat.

Batzuetan, Gobila hurbiltzen zitzaien bisita egitera. Gobila inguruetakoko herritarra baten buruzagia zen. Ile zuriko basatia, mehe eta beltza, zuri koloreko gerrikoduna eta bizkarretik zintzilik pantera-larru zikin bat janzen zuena. Hezur hutsean zituen hanka haiekin pauso luzean iristen zen, bera bezain altua zen makila eskuan zekarrela, eta lantegiko egongelan sartuz kokoriko jartzen zen atearen ezker aldean. Hantxe gelditzen zen, Kayertsi begira, eta noizean behin ulertzen ez zuten hitzaldia botatzen zien biei. Kayertsek, egiten ari zena utzi gabe, adiskide modura esaten zion: “Zer moduz doazkik gauzak, txit argi horri?”, eta irri egiten zioten elkarri. Bi gizon zuriek izaki zaharkitu eta ulertezin hura oso gogokoa zuten eta Aita Gobila deitzen zioten.

Gobilaren jarrera aite batena zen eta bazirudien gizon zuri guztiak maite zituela. Denak gazte eta bereiztezinak (tamainan izan ezik) iruditzen zitzaizkion, eta bazekien hilezinak eta elkarren artean anaiak zirela. Artistaren heriotzak – sakon ezagutu zuen lehen gizon zuria izan zenarenak– bere sineskerietatik ez zuen atera, zeren atzerritarra itxuraz soilik hilda zegoela sinetsirik baitzegoen, arrazoi misterioetsuren batengatik lurpera zezaten (arrazoi misterioetsu horretaz ezer jakin nahi izatea alferrikako kontua zen, bere uestez). Izango ote zen etxera, bere herrira itzultzeko

bide bat? Nolanahi ere, helduberriak bestearen anaiak ziren eta bere begikotasun absurdua helarazi nahi zien. Carlierrek eta Kayertsek, ahal zuten bezala, begikotasun hori itzultzen zioten. Carlierrek kolpetxoak jotzen zizkion bizkarrean eta hura jostarazteko asmoz pospoluak pizten zituen etengabe. Kayertsek beti uzten zion amoniako botilatik usaintzen. Hitz batean, lurreko zuloan ezkutatutako beste izaki guztiek bezalaxe jokutzen zuten. Gobilak adi-adi begiratzen zien. Beharbada, bestearen izaki berbera ziren, edo bietariko bakar bat. Ezin zuen, ordea, misterioa argitu, aurkitu; hala ere, bi gizon zuriekin adiskidetsu jokutzen segitu zuen. Eta adiskidetasun horren ondorioz, Gobilaren herrixkako emakumeak ilaran ibili ohi ziren kanaberadian zehar; eta goizeko hegaztiak, patatak, palmondo-ardoa eta batzuetan ahuntz bat edo beste ere ematen zituzten faktoriara. Konpainiak ez zien nahiko hornidura bidaltzen faktoriatar. Beraz, agenteek tokiko elikadurak behar zituzten bizi ahal izateko. Gobilak erakusten zien borondate onari esker lortzen zituzten eta ondo bizi ziren. Noizean behin, bietako bat sukarrak jota erortzen zen eta orduan bestea hartaz arduratzen zen arta handiz. Gaixotzeak ez zien axolarik ematen. Baina sukarraldiak zirela eta, ahulduta zeuden eta zeukaten itxura gero eta txarragoa zen. Carlierren begiak zulo sakonak ziren eta aise haserraten zen. Kayertsen aldartea apatza eta betazpitsua zen, burua sabel biribilaren gainetik irtenda, eta horrek nahiko itxura xelebrea ematen zion. Beti elkarrekin

ibiltzen zirenez, ez ziren ohartu bai itxura aldetik bai jokabide aldetik aldatzen hasiak zirenik.

Horrela bost hilabete igaro ziren.

Gero, goiz batean, Kayerts eta Carlier galeriako besaulkietan patxadaz eserita zeudela, baporearen bisita hurrenari buruz hitz egiten, gizon-talde armatu batek basotik atera eta faktoriara jo zuen. Ez ziren herrialde hartakoak. Altuak, meheak ziren, eta urdin koloreko ehun litsdunak janzten zituzten, orpoietaraino heltzen zitzaizkienak (betiko usantzan, alegia), eta bizkar biluzi eta zuzenen gainean danbadako mosketeak zeramatzaten. Makola urduritu eta biltegitik (egun osoan bertan pasatzen baitzuen) korrika atera zen, bisitariei agur egiteko. Patioan sartu eta alde guztietarantz begiratu zuten begirada lasai eta erdeinuzkoekin. Buruzagiak, begi odol gorrituko beltz sendo eta bipila, galeria aurrean jarri eta hitzaldi luzea bota zuen. Imintzio asko egin eta gero, bat-batean isilik geratu zen.

Bazegoen zerbait haren ahotsean, erabili zituen esaldi luzeen soinuan, bi gizon zuriak harrিতuta utzi zituena. Guztiz ezezaguna ez zen oroitzapena bezalakoa zen eta, hala ere, jende zibilizatuen hizkera modukoa zen. Batzuetan, ametsetan entzuten ditugun hizkuntza ezinezko horietakoa zirudien.

–Nongo hizkuntza da hori? –galdetu zuen Carlierrek harri eta zur–. Hasieran pentsatu diat morroi horrek frantsesez egiten zuela. Izan ere, inguruotan entzuten den ahuntz-erderarekin ez zeukaan, behintzat, zerikusirik.

–Hala duk –ihardetsi zion Kayertsek–. Aizak, Makola, zer diote? Nondik datoz? Nortzuk dira?

Makolak, ordea, haiek bezain harrituta, presaka erantzun zien:

–Ez dakit. Oso urrutitik datoz. Price andreak agian ulertuko die; beharbada, gizon gaiztoak dira.

Buruzagiak, alditxo batez itxaron ondoren, zerbait esan zion Makolari, eta honek buruari eragin zion. Gero, gizonak bere inguruan begirada bat bota, Makolaren txosna ikusi eta bertarantz abiatu zen. Handik gutxira, Makola andreari entzun ahal izan zitzaion erraz asko hitz egiten helduberriarekin. Gainerako kanpotarrak –sei ziren guztira– lasai-lasai paseatzen aritu ziren: biltegiko ateraino heldu ziren, hilobi inguruan geratu ziren harridura handiz gurutzea seinalatuz eta, oro har, beraien etxean egongo balira bezala jokatu zuten, gutxi gora-behera.

–Morroi hauek ez dizkiat bat ere gogoko eta berriro esango diat, Kayerts, kostaldekoak izan

behar ditek: suarmak daramatzate eta –ohartarazi zion Carlier begi-zoliak.

Kayertsek ere ez zituen gogoko. Lehendabiziko aldiz biak konturatu ziren bizi zireneko baldintza haietan ezohikoa arriskutsua izan zitekeela, eta beraien eta ezohikoaren artean tartekatuko zen botorerik ez zegoela. Aise-gabe sentitu ziren, etxean sartu eta errebolberrak prestatu zituzten. Kayertsek esan zuen:

–Ilundu baino lehen alde egin beharko ditek hemendik. Horrela aginduko zioagu Makolari.

Kanpotarrek arratsaldean egin zuten alde, Makola andreak haientzat prestatutako bazkaria jan eta gero. Emakume sendokotea oso urduri ibilia zen eta berriketa luzeak izan zituen bisitariekin. Ahots zorrotz batekin hitz eta pitz jardun zuen, hau eta hura erakutsiz, hara eta hona, ibai alderantz eta baso alderantz. Makola bazter batean eseri eta begira iraun zuen. Noizean behin jaiki eta zerbait xuxurlatzen zion emazteari. Faktoriaren atzealdeko sakaneraino lagundu zien kanpotarrei, eta gelditu gabe itzuli zen, pentsakor. Zuriek itaundu ziotenean, oso arraro egon zen. Bazirudien ez zuela ezer ulertzen, frantsesez egitea ahaztu izan balitzaio bezala edota hizkuntza bakar batez hitz egiten ez zekiela. Carlier eta Kayerts bat etorri ziren: beltzak palmondo-ardo gehiegi edana zuen. Goardiak antolatzea pasatu zitzaien burutik; gauean, ordea, giroa horren lasai eta baketsua zirudien non beti

bezala oheratzea erabaki zuten. Baina herri inguruetako danbor-hotsek loa galarazi zieten gau osoan. Hurbileko tarrapata sakon eta arin bati beste urrunago batek jarraitzen zion; gero, dena amaitu zen. Baina berehala hasi ziren han-hemen dei labur batzuk entzuten, gero dei guztiak nahastu eta gehituz joan ziren, indartsuago eta iraunkorrago bilakatu ziren arte, basoan zehar hedatuz eta gauan zehar iraulkatuz, etengabe eta jarraiki (urrun zein hurbil, lurra zeruari deika ari zen danbor isilezin bihurtu balitz bezala).

Carlierrek eta Kayertsek gaizki egin zuten lo. Biei iruditu zitzairen gauetz tiroren bat entzutea, tiroak nondik zetozen jakitea erabat ezinezkoa egin bazitzairen ere. Goizean, Makola norabait joana zen. Eguerdi aldean, berriz, lehengo egunetako kanpotarretariko batekin itzuli zen, eta Kayertsek egin zizkion hurbiltze-keinuei ez zien jarramonik egin, gorra-edo gelditu izan bailitza. Kayertsek ahaleginak egin zituen gertatzen ari zena ulertzeko. Carlier ibai-ertzean arrantzan aritua zen, eta itzuli zenean iruzkin bat egin zion, arrantza erakutsiz batera:

–Beltzak oso urduri zebiltzak; jakin nahi nikek zer ari den gertatzen. Arrantzan ari nintzen artean, bi ordu eskaseko tartean, hamabosten bat kanoa ikusi dizkiat ibaia zeharkatzen.

Kayertsek zera ihardetsi zion kezkatzi:

–Ez duk uste Makola gaur oso arraro dabilela?

Carlierrek aholkatu zion:

–Bildu gizonak, arazorik gertatuko balitz.

2

Zuzendariak hamar gizon utzi zituen faktorian. Gizon haiek sei hilabeterako emana zuten izena Konpainian (hilabeteak zer ote ziren ideiarik nimiñoena ere ez zeukaten; eta denborari buruz, nozio lainotsu bat, besterik ez). Dena den, bi urte baino gehiago zeramaten aurrerakuntzaren aldeko morroi. Minaren eta goibeltasunaren lurraldekoak ez zirenez –erabat bestelakoa zen beste lurralde batekoak baizik–, ez ziren hanka egiten saiatzen, uste baitzuten, ezen, horrela eginez gero, bertako biztanleek hilko lituzketela, arlote arrotzak izateagatik. Eta arrazoi zeukaten. Sastrakaz estalitako sakana baten hegian bizi ziren, lastoz eginiko txosnetan, faktoriaren atzealdeko eraikinetan, hain zuzen. Ez ziren zoriontsuak; jai-araoak, sorginkeriak, giza-sakrifizioak falta zitzaizkiela sentitzen zuten; gurasoak, anai-arrebak, buruzagi miretsiak, azti agurgarriak, adiskide kutunak eta ustez gizatiarrek diren beste lokarri batzuk zeuzkaten utziak bere herrian. Gainera, Konpainiak egunero jateko ematen zien arroza

kaltegarria zitzaien, beraien lurretan ez baitzuten elikadura hori ezagutzen eta ezin ziren hartara ohitu. Hori dela eta, gaixo eta triste ibili ohi ziren. Beste leinu batekoak izan balira, euren burua hiltzea erabakiko zuketen –zenbait basatirentzat ezer ez baita errazagorik suizidioa baino– eta horrela existentziaren zailtasun ulertezinei ihes egingo zieketen. Gerlari-leinu batekoak ziren, ordea –“hortz zorrotzak” izeneko leinukoak– eta gogortasun handikoak ziren, eta ergelkiro eusten zioten bizitzari, zailtasunak gorabehera. Oso lan gutxi egiten zutenez, behinolako itxura bikaina galdua zuten, Carlierrek eta Kayertsek arduraz zaintzen bazituzten ere. Goizero denak bildu eta eguneko lanak adierazten zizkieten: belarra ebaki, hesi berriak altxatu, zuhaitzak moztu, eta abar; baina mundu honetako inork ezin zituen konbentzitu lan horiek ongi egin zitzaten. Egia esan, bi zuriek oso botere txikia zuten haien gainean.

Arratsaldean, Makola etxe handira joan zen eta baso gainetik altxatzen ziren hiru ke-adar usuetara begira aurkitu zuen Kayerts.

–Zer da hori? –galdetu zion Kayertsek.

–Baserri batzuk sutan –erantzun zion Makolak, bere senera etorrita zirudiena. Gero, azkar erantsi zuen:

–Boli gutxi daukagu. Azken sei hilabeteak txarrak izan dira. Boli gehiagorik nahi al duzu, jauna?

–Bai –esan zuen Kayertsek aldarte txarrez. Ehunekoak oso txikiak direla ari ninduan pentsatzen.

–Atzo etorri ziren gizonak Luandako merkatariak ziren eta bere herrira eraman ditzaketena baino askozaz boli gehiago daukate. Erosiko al dut? Badakit kanpamendua non daukaten.

–Jakina –erantzun zion Kayertsek–. Nortzuk dira merkatari horiek?

–Gizaseme gaiztoak –esan zuen Makolak axolagabe–. Borrokan ibiltzen dira jendearekin, emakumeak eta haurrak bahitzen dituzte. Gaiztoak dira, eta eskopetadunak. Zalaparta handiak ari dira gertatzen herrialde osoan. Bolirik nahi al duzu?

–Bai –esan zuen Kayertsek.

Makolak alditxo batez isilik iraun zuen.
Gero:

–Gure langileek ez dute ezertarako balio – marmartu zuen inguruan begiratur–. Faktorian gauzak edozein modutan dabilta. Zuzendariari ez

zaio ondo irudituko. Hobe boli asko aurkitzea, horrela ez du ezer esango eta.

–Ezin diat ezer egin. Gizonek ez ditek lan egin nahi –esan zuen Kayertsek–. Noiz lortuko duk bolia?

–Laster –esan zuen Makolak–. Gaur gauean agian. Utzi gauzak nire kontu eta gelditu etxean, jauna. Nire ustez, palmondo-ardoa eman beharko zenien gure gizonei, gaur gauean dantza egin dezaten. Alai daitezela. Hobeto lan egingo dute bihar. Apur bat garraztu den palmondo-ardo asko dago.

Kayertsek baietz esan zuen eta Makolak berak eraman zituen bi edankuia handi haien txosnako ateraino. Gautu arte bertan gelditu ziren bi edankuiak, eta Makola andreak banan-banan begiratu zituen barrutik. Gizonek ilunabarrean aurkitu zituzten. Kayerts eta Carlier etxeratu zirenerako, su handi bat piztuta zegoen txosnaren aurrean. Oihuak eta danbor-hotsak entzuten ziren. Gobilaren herrikkako batzuk faktoriakoekin elkartu ziren eta jaiak erabateko arrakasta izan zuen.

Gau minean, Carlier ustekabeen esnatu zen, gizonen baten oihua entzunda. Gero, desarra bat. Bakar bat. Carlier korrika atera eta Kayerts topatu zuen galerian. Biak erabat ikaratuta zeuden. Makolari deitzeko patioa zeharkatu zutenean,

gauean itzal batzuk ikusi ahal izan zituzten han-
hemen. Itzal haietariko batek oihu egin zien:

–Ez egin tirorik. Ni naiz, Price.

Gero, Makola azaldu zitzaien aurrean.

–Sar zaitetze barrura, otoi –premiatu zituen–
, den-dena bidaliko duzue pikotara.

–Kanpoko jendea zebilek hemen –esan zion
Carlierrek.

–Ez du axolarik; badakit –esan zuen
Makolak.

Gero, xuxurlatu egin zien:

–Dena ondo doa. Bolia ekarri dute. Ez esan
ezer, gero! Badakit zertan ari naizen.

Bi gizon zuriak gogo txarrez itzuli ziren
etxera, baina lo egin ezinez pasatu zuten gau guztia.
Oin-hotsak entzun zituzten, baita xuxurlak eta
kexuak ere. Bazirudien gizon askok lurtean pisu
astunak utziak zituztela, aldi batez borrokan aritu
izan balira bezala, eta segituan alde egin. Bi gizon
zuriak ohe banatan etzanda zeuden eta pentsatzen
zuten: “Makola guztiz aparta duk”. Biharamonean,
Carlier erdi lotan atera zen eta kanpai handiari
eragin zion. Langileak goi-goizero biltzen ziren,
dangadak entzun bezain laster. Goiz hartan, ordea,

inor ez zen azaldu. Kayerts ere atera zen, aharrausika. Makola ikusi zuten patioz bestaldeko txosnatik ateratzen, ur xaboitsuz betetako estainuzko azpila eskuetan zeramala. Makola beltz zibilizatua zen, txit arduratia bere buruarekin. Bere txakur hori koloreko gizajoaren gainetik xaboi-ur guztia bota eta agentearen etxera itzuliz zera oihukatu zuen urrutitik:

–Bart gauean gizon guztiek alde egin zuten!

Ederki ulertu bazuten ere, harrituta oihukatu zuten biek batera: “Zer?”

Gero, elkarri begiratu zioten.

–Istilu ederrean sartu gaituk –marmar egin zuen Carlierrek.

–Sinestezina duk –kexatu zen Carlier.

–Txosnetan begiratuko diat –esan zuen Carlierrek zango luzean urrunduz. Makola heldu zenean, Kayerts bakarrik aurkitu zuen.

–Ezin diat sinetsi –esan zuen Kayertsek negarti-. Gure semeak balira bezala zaintzen genizkian.

–Kostaldeko jendearekin alde egin dute –esan zuen Makolak une batez zalantzan egon ostean.

–Bost axola niri zeinekin alde egin duten, esker txarreko basapizti halakoak! –oihu egin zuen besteak. Gero, bat-bateko susmo txarrek hartuta eta Makolari begirada gogorra zuzenduz, erantsi zuen– : Eta hik ez dakik ezer guztionetaz?

Makolak soinak goratu zituen, lurrari so.

–Zer jakin behar dut ba ? Nik pentsatu egiten dut, besterik ez. Jauna, etorri nahi al duzu hor dagoen bolia ikustera? Bikaina da. Inoiz ez dut boli hobeagorik ikusi.

Biltegirantz abiatu zen. Kayertsek mekanikoki jarraitu zion, gizonen ihesaldi sinestezinari buruz pentsatuz. Lurrean, fetitxeko ate aurrean, sei betortz bikain zeuden.

–Zer eman hien trukean –galdetu zuen Kayertsek boliari pozik begiratu.

–Ez da nolanhiko salerosketa izan –esan zuen Makolak–. Bolia ekarri zuten eta eman egin zidaten. Esan nien faktoriako edozer eramateko, nahiago zutena. Boli bikaina da. Inongo faktorian ez dute horrelako bolirik eskuratuko. Merkatariak zamaketariak behar zituzten eta gure gizonen ez zuten ezertarako balio. Salerosketarik ez, liburuetan mozkinik ez, den-dena legezkoa.

Kayerts, oso-oso haserre, lehertzeko zorian zegoen.

–Nola? –oihukatu zuen–, ziur nagok gure gizonak betortz hauen truke saldu dituala.

Makolak sorgor eta isilik irauin zuen.

–Ni... ni –hitz totelka hasi zen Kayerts–. Pizti hutsa haiz! –oihu egin zion.

–Jaunei eta Konpainiari gehien komeni zitzaiena egin dut –esan zuen Makolak ikaraezin–. Zergatik egiten didazu errieta? Begira betortz hauei.

–Kalean hago! Salatuko haut, ez dizkiat betortz hauek ikusi ere egin nahi. Eta debekaturik daukak bolia ukitzea. Hau ibaira botatzeko agintzen diat. Hi... hi...!

–Odola bildu zaizu buruan, Kayerts jauna. Eguzkitan sumintzen bazara, sukarrak hartu eta lehengo nagusia bezalaxe hilko zara –esan zuen Makolak astiro.

Biak isilik geratu ziren, begirada biziak elkarri jaurkiz, bien artean itzelezko tartea egongo balitz bezala elkarri beha. Kayertsek dardar egin zuen. Makolak ez zuen gehiago hitz egin nahi; Kayertsi, ordea, beltzaren hitzak mehatxuz beteta zeudela iruditu zitzaion. Zakar bueltatu eta etxera

joan zen. Makola ere bere txosnan sartu zen; eta betortzek, biltegiaren aurrean sakabanatuta, oso handiak eta baliotsuak ziruditen eguzkitan.

Carlier galeriara itzuli zen.

–Guztiek alde egin ditek, ezta? –galdetu zuen Kayertsek gela nagusiaren barrenetik, ahots hilaz–. Ez al duk inor aurkitu?

–A, bai –esan zuen Carlierrek–. Gobilaren gizonetako bat hilda aurkitu diat txosnetan. Gorputzean tiro bat zeukan. Bart gauean entzun genuen tiroa izango zuan.

Kayerts azkar atera zen. Geroago, laguna goibel aurkitu zuen biltegian, patiotik betortzei begira. Aldi batez isilik eseri ziren biak. Gero, Makolarekin izandako solasa kontatu zion Kayertsek. Carlierrek ez zuen ezer esan. Hamaiketakoan oso gutxi jan zuten. Egun hartan ia ez zioten elkarri hitzik egin. Isiltasun izugarriak faktoriaren gainean flotatzen zuela zirudien eta ezpainak hertsita izan zituzten. Makolak ez zuen denda ireki; semeekin jolasean eman zuen eguna. Ate aurreko lastozko tapizean bota zuen gorputza luze-luze, semeak bularrean eseri eta gainetik lauoinka zebilzkion bitartean. Hunkigarria, benetan. Makola andrea lanean ari zen, sukalde-lanetan, beti bezala. Zuriek apur bat hobeto bazkaldu zuten arratsaldean. Gero, Carlier, pipatik pafa-pafa, dendara hurbildu zen zango-laburrez.

Denbora luzea pasatu zuen betortzen ondoan; baten bat oinarekin ukitu zuen; puntarik txikienetik handiena altxatzen ere saiatu zen. Gero, nagusiarengana bueltatu zen, zeina galerian jarraitzen baitzuen, eta aulki batean gorputza erortzen utziz esan zuen:

–Bazekiat zer gertatu den. Lotan zeudela eraso zietek. Makolak eman zieran palmondo-ardoa edan ostean lozorro gelditu zituan. Aldez aurretik zegoan prestatuta dena. Konturatzen haiz? Okerrena zera duk: Gobilaren gizon batzuk ere hemen bertan zituan, eta horiek ere eraman zizkiaten. Mozkortuegi ez zegoen bat esnatu eta zeharo edanda ez egoteagatik tiro egin ziotean. Hau herrialde xeblebra, hau! Zer egingo duk orain?

–Ezin diagu ezer egin –esan zuen Kayertsek.

–Ez, noski –baietsi zuen Carlierrek.

–Esklabotza izugarria duk –esan zuen Kayertsek totelka eta ahots kraskatuaz.

–Izugarria, mota guztietako sufrimenduak –marmartu zuen Carlierrek etsipenez.

Esaten zituzten gauzak sinesten zituzten. Denok entzun dezakegu halako begirune batez norberak edota besteek esandakoa. Sentimenduei dagokienez, ordea, inork ez daki ezer. Gogo hotzez

edo gogo beroz hitz egiten dugu; zapalkuntzari buruz, ankerkeriari buruz, hilketei buruz, besteei erakutsi-beharreko elkartasunari buruz, sakrifizioari buruz edota birtuteari buruz hitz egiten dugu, nahiz-eta hitz horien atzean benetan zer dagoen ideiarik txikiena ere ez izan. Inork ez daki sufrimenduak edo sakrifizioak benetan zer suposatzen duten, ilusio horien asmo misterioitsuaren biktima direnek izan ezik (auskalo!).

Biharamunean, Makola oso lanpetuta ikusi zuten, bolia pisatzeko erabiltzen ziren pisagailu handiak osatzen eta abar. Handik gutxira, Carlierrek esan zuen:

–Zer egin behar du orain zital horrek? –eta patiora atera zen urrats motelekin.

Kayertsek jarraitu egin zion. Begira gelditu ziren. Makolak ez zien jaramonik egin. Pisagailua orekatuta zegoenean, betortz bat gainean jartzen saiatzen zen. Baina pisutsuegia zen. Bista goratu zuen babesgabe, hitzik ahoskatu gabe, eta handik minutu batera hiru gizonak zeuden pisagailuaren inguruan, hiru harrizko irudi balira bezala, mutu eta geldi. Ustekabean, Carlierrek esan zuen:

–Har ezak beste aldetik, Makola, astakirten horrek! –eta bien artean altxatu zuten. Kayerts dardaraz zegoen burutik oinetara.

–Jainkoarren, Jainkoarren! –marmartu zuen, eta eskua patrikan sartuz, paper puska zikin bat eta lapitz-zati bat atera zituen. Amarruren bat egiteko asmoa izango balu bezala, besteei bizkarra eman eta Carlierrek ozenki oihukatutako prezioak idatzi zituen ezkutuka. Dena amaitu zenean, Makolak bere bururako xuxurlatu zuen: “Eguzkiak gogor jotzen du hemen. Betortzak izorratuko ditu”. Carlierrek, axolagabe, esan zion Kayertsi:

–Aizak, nagusi, hobe izango diagu betortzak biltegira eramatea.

Etxera itzuli zirenean, Kayertsek zera esan zuen zizpuru bat botaz:

–Egin beharra zegoan.

Eta Carlierrek esan zuen:

–Tamalgarria duk. Dena den, nola gizonak Konpainiarenak ziren, bolia ere Konpainiarena duk. Zaindu behar diagu.

–Jakina, Zuzendariak izango dik guztionen berri –esan zuen Kayertsek.

–Jakina. Berak erabakiko dik zer egin –baieztatu zuen Carlierrek.

Eguerdian erruz bazkaldu zuten. Noizean behin, Kayertsek zizpuru bat botatzen zuen.

Makola izena aipatzen zuen bakoitzean, epiteto iraingarri bat edo beste eransten zuen. Horrela, bihotz-zimikoak baretzen zituen. Makolak egun erdiko oporra hartu eta semeekin bainu hartzera joan zen ibaira. Gobilaren herrixkako inor ez zen egun hartan faktoriara hurbildu. Inor ez zen hurrengo egunean azaldu, ezta hurrengoan ere, ezta astebetean ere. Gobilaren jendea hilda eta lurperaturik egon zitekeen, ematen zituzten bizizantzu urriak ikusita. Dolua zekarten, ordea, zurien sorginkeriaren erruz galdutako gizonen omenez. Zuriak –haien iritziz– gizon gaiztoak ekarri zituzten herrira. Gizon gaiztoak alde eginak baziren ere, beldurrak oraindik bere horretan zirauen. Beldurrak beti dirau. Gizon batek bere baitan dagoen guztia suntsi dezake: maitasuna, gorrotoa, sineskeriak eta zalantzak. Baina bizitzari oratuta dirauen artean, ezin izango du bere beldurra suntsitu; barruan daraman beldur zorrotz, suntsigaitz eta izugarria; pentsamenduak goibeltzen dizkion beldurra; bihotzari inguratzen zaion beldurra; azken arnasaren borroka gizonaren ezpainetan agerian uzten duen beldurra. Beldurrak eraginda, Gobila zahar eta otzanak giza-sakrifizio gehiago eskaini zizkien Izpiritu Bihurriei, adiskide zuriengan sartuak zirenei. Bihotza atsekabez josita zeukan. Gerlari batzuek hiltzeaz eta erretzeaz hitz egiten zuten. Basotar zahar eta zuhurrak, ordea, halako asmoak burutik kenarazi zizkien. Behin zirikatuta, izaki misteriotsuak (zuriak) areago haserra zitezkeen, eta orduan nork jakin zer-nolako hondamendiak ez ziren gertatuko! Bakean utzi

behar zitzairen. Agian, denborak lagun, beste haiek ere desagertuko ziren, lehenbizikoarekin gertatu bezala. Bere herriko jendeak zuriengandik urrun egon behar zuen, garai hobeen esperantzan.

Baina Kayerts eta Carlier ez ziren desagertu, baizik-eta gero eta handiagoa eta hustuagoa iruditzen zitzairen lurralde hartan bizirik iraun zutela. Zirrara ematen ziena ez zen soilik bertako erabateko bakardadea; euren baitan zerbait itzali zitzaielako sentipen adierazgaitza are kezkarriagoa zitzairen. Hasiera batean segurtasuna eman ziena –oihanari eragotzi ziona beraien bihotzak bereganatzea– orain galdu egiten zituen. Aberriko irudiek, beraiek bezalako gizakien oroitzapenek, beraiek bezala pentsatu eta sentitzen zuten gizonei buruzko oroitzapenek atzera egin zuten, hodeirik gabeko eguzkiaren ditzirak nabarmentzea uzten ez zituen distantzietaraino egin zieten atzera. Eta inguratzen zitzairen oihanaren itzelezko isiltasunetik bazirudien etsipena eta basatasuna hurbiltzen zitzaizkiela, ia-ia oihartu gabe herrestan zeramatzala, edota haien zelatan zegoela: oihanak ardura jarkiezin, mingarri eta higuingarri batez estali nahi zituen.

Egunak aste bihurtu ziren; gero, hilabete.

Gobilaren herrikoek danborrak joka eta oihuka jarraitzen zuten, lehen bezalaxe. Faktoriara, ordea, ez ziren hurbiltzen. Behinola, Carlier eta Makola saiatu ziren, kanoa hartuta, harremanak

berreskuratzen, baina korrika itzuli behar izan zuten bizia salbatzeko, zeren gezi-hodei batekin egin baitzieten abegia. Saio hark ibaitik gorako eta beheko lurretan egunetan entzun ahal izan zen zalaparta eragin zuen. Baporea ez zen iristen. Hasieran, axolagabe hitz egiten zuten atzerapen horretaz; gero, larritzen hasi ziren; eta azkenean, goibeldu. Gorriak ikusten hasiak ziren. Ez zuten nahiko elikadurarik. Carlierrek pita botatzen zuen ibai-ertzean. Baina ibaiak ur gutxi zekarren eta korrontean ez zegoen arrainik. Ehizan ibiltzeko ez ziren ausartzen faktoriatik urruntzera. Gainera, baso sarkaitzean ere ez zegoen ehiza handirik. Behinola, hipopotamo bat hil zuen ibaian Carlierrek. Baina hura lehorrera ekartzeko txaluparik ez zeukatenez, animalia hondora joan zen. Eta ur-azalera igo zenerako, urrundua zen eta Gobilaren jendea gorpuaz jaun eta jabe egin zen. Horrek jai nazionala ospatzeko bidea eman zien. Carlierrek, amorraturik, esan zuen beltz guztiak hil beharko lituzketela, herria bizigarri izango bazen. Kayerts noraezean zebilen, hitz gutxiko; orduak eta orduak ematen zituen Melie maitearen irudiarri begira –koloregalduriko txirikorda luzeko eta aurpegi mingotseko neskato bat–. Kayertsek hankak puztuta zeuzkan eta nekez ibiltzen zen. Carlier, sukarra zela eta, habailduta ibiltzeko gauza ere ez zen ordurako; eta horretan saiatzen zenean, airean kili-kolo zebilela ematen zuen, ezerk axola ez ziolako halako aire batekin, zaldieriako talde zoragarriaz oroitzen den gizonaren modura. Erlats zegoen, eta eztenkadak eta gauza desatseginak

esateko ohitura hartu zuen. Haren ustez, “ahoa ilerik gabe” hitz egiten zuen. Merkataritzan egokituko zitzaizkion portzentaiak aspalditik zeuzkan aterata, baita Makola zitalaren azken salerosketarenak ere. Erabakita zeukan kontu hartaz inongo aipurik ez egitea inoiz. Kayerts dudamudatan ibili zen hasieran, Zuzendariaren beldur baitzen.

–Isilik gordetakoak baino gauza askoz txarragoak ikusita zeuzkat –argudiatzen zuen Carlierrek barre-agara erlats batekin–. Fidatu Zuzendariaz eta ikusiko duk! Egia kontatzen badiok, ez dik sinetsiko. Ez duk hi edo ni baino zintzoagoa. Bestalde, norik kontatuko dio ezer gu isilik egoten bagara? Hemen ez zegok inor.

Horixe zen arazoa! Ez zegoela inor, eta euren ahuleziekin bakarka zeudenez, adiskide mami baino gehiago bikote konplize bilakatuz joan ziren. Gauero esaten zuten: “Bihar agertuko duk baporea”. Konpainiaren bapore bat, ordea, ibaihondoan galdua zen eta Zuzendaria oso lanpetuta zebilen, ibaiko beste faktoria urrun eta garrantzitsu batzuk bisitatzen. Faktoria hura alferrikakotzat jotzen zuen, gainera. Bien bitartean, Kayertsek eta Carlierrek gatzik gabeko arroza jaten irauten zuten bizirik eta Konpainia, Afrika osoa eta jaio zireneko eguna madarikatzen zituzten. Halakako jan-neurriarekin bizi behar da, janaria irenstea arazo bihurtzen den kontua benetan zertan den ulertu ahal izateko. Faktorian, eta ez da gehiegikeria, arroza

eta kafea baino ez zegoen. Kafea azukrerik gabe hartzen zuten. Kayertsek hamabost azukre-koxkor (azkenak!) gordeak zituen giltzapean, handikiro, botila erdi koñakarekin batera: “gaixotuko bagina”, azaldu zuenez. Carlierrek ideia ontzat jo zuen.

Zain zeuden. Patioko sastraka hazten zihoan. Kanpairik ez zen entzuten. Egunak isilik, suminez eta geldiro igarotzen ziren. Bi gizonak elkarri hitz egiten ziotenean, eztabaidaka hasten ziren (beraien pentsamenduen mingostasunez tindatuak baleude bezala). Egun batean, arroz egosia bazkaldu ondoren, Carlierrek kafea dastatu eta bertan behera utzi zuen, esanez:

–Arraioa, har dezagun, gaurkoz behintzat, kafe ona! Atera azukrea, Kayerts!

–Gaixoentzako duk –marmartu zuen Kayertsek bista altxatu gabe.

–Ergelkeriak!... Konforme, ni gaixo nagok.

–Ni bezain gaixo hago eta ez diat ukitu ere egingo –esan zuen Kayertsek lasai-lasai.

–Tira, atera azukrea, zeken horrek, esklabu-tratalari zahar horrek!

Kayertsek begiak goratu zituen azkar. Carlierrek ageriko lotsagabekeriaz egiten zion irri. Ustekabean, Kayertsi iruditu zitzaion ezen ordura

arte gizon hura ez zuela ezagutzen. Nor ote zen? Hartaz ez zekien ezer. Zer egiteko gauza zen? Indarkeriazko hunkipen baten antzeko leherketa bat-batekoa sentitu zuen bere barruan (irudikaezin, arriskutsu eta erabatekoa zen zerbaiten aurrean egongo balitz bezala).

Jarrera zintzoa utzi gabe, oraindik esan zuen:

–Oso gustu txarreko txantxa hirea. Ez esan berriro horrelakorik.

–Txantxa! –esan zuen Carlierrek eserlekuan zertxobait aurreratuz–. Gose nauk, gaixorik nagok eta ez nauk txantxetan ari. Ele-zuriak gorroto dizkiat. Esklabu-tratalaria haiz. Herri madarikatu honetan esklabu-tratalariak besterik ez zegok. Eta, jakina, azukrearekin hartuko diat gaurko kafea!

–Debekatzen diat niri horrela mintzatzea – esan zuen Kayertsek kementsu.

–Hik? Zer diok? –deiar dar egin zion Carlierrek salto batez zutik jarriz.

Kayerts ere zutik jarri zen. “Hire nagusia nauk” hasi zen esaten, ahotsaren dardara menperatu nahian.

–Zer? –oihu egin zuen besteak–. Nor da nagusia? Hemen ez zegok nagusirik. Hemen ez

zegok ezer: hitaz eta nitaz aparte, hemen ez zegok ezer. Atera azukrea, astakilo horrek, sabel-handi horrek.

–Isildu eta atera gela honetatik! –deiadar egin zuen Kayertsek–. Kale gorrian hago, gizajo hori!

Carlierrek eserlekua eskuan zuela jaiki egin zen. Bat-batean guztiz arriskutsu bilakatu zen.

Kayerts mahai azpian ezkutatu zen eta aulkitxoak gelako belar-trenkadaren aurka jo zuen. Gero –Carlier mahaia iraultzen saiatzen zen bitartean–, Kayertsek itsu-itsuan eraso zion, etsita, burua beherantz, basurde zirikatua antzera, eta laguna lurrera botaz, galeria korrika zeharkatu eta bere gelan sartu zen. Atea giltzaz itxi, pistola hartu eta bertan gelditu zen, hasperenka. Ozta igaro zen minutu bat eta Carlier bazen han. Jarraian, su eta gar hasi zen atearen kontra ostikoak jotzen.

–Azukrea ateratzen ez baduk, txakurrak bezala hilko haut. Orain: bat, bi, hiru. Ez duk nahi? Erakutsiko diat nagusia nor den.

Atea botako zuelakoan, Kayertsek leiho modura ere balio zuen zulo karratu batetik ihes egin zuen. Bien artean etxearen zabala tartekatzen zen. Besteak, ordea, atea botatzeko indar nahikorik ez eta korrikari ematen entzun zion Kayertsek. Gero, bera ere korrika hasi zen, hankak puztuta bazituen

ere. Ahalik eta azkarrenik egin zuen korrika, pistola eskuan zuelarik, zer gertatzen ari zen ezin ulerturik. Makolaren etxea, biltegia, ibaia, sakana eta mendixka igaro zitzaizkion azkar-azkar begien aurretik; eta etxeari bigarren buelta ziztu bizian eman zionean, gauza bera gertatu zitzaion. Korrika jarraitu zuen ahalik eta azkarren. Minutu batzuk lehenago, ezinezkoa izango zitzaiokeen bi urrats ematea arnasestuka hasi gabe. Orain, berriz, korrika zihoan. Carlierren begitik kanpo gelditzeko bezain azkar zihoan.

Gero, ahul eta etsita, zera hasi zen pentsatzen: “Hurrengo buelta amaitu aurretik, hil egingo nauk”. Orduan, besteari entzun zion oztopatzen eta gelditzen. Bera ere gelditu zen. Etxearen atzealdean zegoen eta Carlier aurrealdean, hasieran bezala. Besaulki batean biraoka erortzen entzun zionean, bere hankek bat-batean huts egin eta lurrera labaindu zen, etxeko hormaren kontra eseriz. Ahoa lehor-lehor zeukan, errautsezkoa bailitzan, eta aurpegia izerdiz eta malkoz bustita. Zer ari zen gertatzen? Pentsatu zuen dena ilusio izugarria ez ote zen izango, dena ametsa ez ote zen edota burua ez ote zuen galdu. Laster, ordea, bere senera etorri zen. Zergatik ari ziren sesioan? Azukreatatik? Hori bai zentzurik gabea! Emango zion, berak ez baitzuen ezertarako nahi. Guztiz zutitu baino lehen, ordea, zentzu-izpi bat izan zuen, eta berriro geldi geratu zen, etsita. Pentsatu zuen: “Soldadu basati horren aurrean amore ematen badut, bihar, etzi eta egunero berriro hasiko duk

amesgaizto hau, gero eta gehiago nahiko dik, zanpato egingo naik, oinazeztatuko naik, haren esklabu bihurtuko nauk, nire hondamena izango duk! Nire hondamena! Auskalo baporea noiz iritsiko den, iristen baldin bada”. Bereganatu zuen dardara hain izan zen bortitza non osterera ere eseri behar izan zuen. Etsi-etsita, zirgita egin zuen. Mugitzea ia ezinezkoa zitzaion, eta une batez pentsatu zuen hantxe geldituko zela, betiko, altxatu ezinean. Ezerk zentzurik ez duenean, une larrietan, bizitza eta heriotza orobat zailak eta izugarriak direla ulertu zuen.

Ustekabean, besteari entzun zion besaulkia lurrera botatzen. Lurretik zalu altxatu zen jauzi batez. Erne geratu zen, bere burua nahasturik sentitzen zuelarik. Korrika hasi beharko al dut berriro? Oin-hotsak entzun zituen. Ezker alderantz korrika hasi zen, errebolberrera eskuan zuela, eta une hartantxe –edo, behintzat, hala iruditu zitzaion berari– elkar jo zuten modu izugarrian. Biek batera oihu egin zuten, harriduraz. Gero, zarata handiko leherketa bat eta gorri koloreko sugarraldi bat gertatu ziren, eta ke lodia altxatu zen bien artean. “Tiro egin zidak; nireak egin dik”. Bere hilzoriaz gozatzearren, bestea noiz etorriko zain geratu zen. Teilatu-gainari heldu zion: “Nireak egin dik!”. Gero, etxetik bestaldean, zerbait entzun zuen zalaparta handiz erortzen, aulki baten gainean norbait erori izan balitz bezala; gero, isiltasuna. Ez zen beste ezer gertatu. Kayerts ez zegoen hilda. Besaburua, ordea, lekuz kanpo bezala sentitzen

zuen. Errebolberra galdu zuen. Armarik gabe eta etsi-etsita zegoen. Amaieraren zain geratu zen. Carlierrek ez zuen zaratarik ateratzen. Amarruren bat izango ote zen? Zelatan ote zegoen? Non, gero? Bazitekeen nonbait egotea pistolaz bera apuntatuz.

Taiurik gabeko hilzori izugarri haren lehen uneak igarota, bere patuaren bila joatea erabaki zuen. Errenditzeko prest zegoen. Izkinari buelta eman, lasaitzeko eskua hormaren kontra jarri, urrats batzuk eman eta ia konorterik gabe erori zen, zeren, etxeko beste izkinatik aterata, gorantz okertuta, oin pare bat ikusi baitzuen. Oso-osoa gaixorik sentitu zen eta iluntasun lodi batean bezala iraun zuen une batez. Gero, bere aurrean Makola azaldu zen, lasai-lasai esanez:

–Hau al da zure errebolberra? –galdetu zion Makolak, zutik jarriz.

–Bai –erantzun zion Kayertsek, azkar-azkar erantsiz–. Nire atzetik zetorreen; tiro egin nahi zidaan. Heuk ere ikusi duk!

–Bai, ikusi dut –esan zuen Makolak–. Errebolber bat besterik ez dago; non dago bestea?

–Ez zekiat –xuxurlatu zuen Kayertsek, ustekabean erabat ahuldutako ahots mehe batez.

Kayertsek gorpuari begira eserita zirauen bitartean, Makolak buelta eman zion galeriari.

Esku-hutsik itzuli zen eta gogoetan murgildu zen. Gero, hildakoaren gelan lasai-lasai sartu eta Kayertsi erakutsi zion errebolber batekin atera zen handik. Kayertsek begiak itxi zituen. Inguruko gauza guztiak jira-biraka hasi zitzaizkion. Bizitza, orain, heriotza baino zailagoa eta izugarriagoa zen. Armatuta ez zihoan gizon bat hil zuen.

Aldi batez gogoeta egin ondoren, Makolak, eskubiko begia lehertuta zeukan gorpuari erakutsiz, esan zuen:

–Sukarrak jota hil da.

Kayertsek espresiorik gabe begiratu zion.

–Bai –berretsi zuen Makolak pentsakor, gorpuaren gainetik pasatuz–. Sukarrak jota hil da. Bihar lurperatuko dugu.

Eta bi gizon zuriak galerian bakarka utzita, emaztearengana itzuli zen, hura beraren zain baitzegoen.

Gaua heldu zenean, Kayerts besaulkian eseri eta bertan geratu zen, geldi-geldi. Lasai sentitzen zen, opio-dosiren bat hartu izan balu bezala. Jasandako hunkipen indartsuek lasaitasun ahuleko sentazioa eragiten zioten. Izuaren eta etsipenaren arteko sakontasunak arratsalde bakarrean esperimentatuak zituen. Hartaz geroztik, ez bizitzak ez heriotzak beretzat sekreturik ez

luketela izango pentsatzerakoan, halako lasaitasun batek bereganatu zuen. Gorpuaren ondoan eseri zen, pentsakor; gogoeta sakonetan murgildu zen; pentsamendu berriak zetozkion burura. Iruditzen zitzaion ezen berarengandik oso urrun zegoela, oso urrun. Aspaldiko pentsamendu, sineste, zaletasun eta ezinikusiak, errespetatzen zituen gauzak eta gorrotatzen zituenak, orain euren benetako argipean aurkezten zitzaizkion. Mespregarriak eta ume-kontuak, gezurrezkoak eta barregarriak ziruditen. Jakintza berriarekin oso gustura sentitzen zen, hark hil zuen gizonaren ondoan eserita. Zeruaren azpiko gauzei buruz eztabaidaka aritzen zen bere buruarekin, burutik jota dauden batzuek izaten duten argitasun zehiar horrekin. Dena den, pentsatu zuen, ezen, hildakoa asmo gaiztoko piztitxo bat besterik ez zela; egunero, hamaika lagun, beharbada milaka –zeinek jakin?– hiltzen ziren, eta heriotza-kopuru horri beste bat gehitzeak ez zuen axolarik –pentsatzeko gai zen pertsona batentzat, behintzat, ez–. Bere bizitzako une hartara arte, hain zuzen, zentzurik gabeko gauza askotan sinetsi izan zuen, gainerako gizateriak bezala –leloek osatzen duten gizateria horixe–; orain, berriz, pentsatzeko gauza zen! Gero, bere burua hilda eta Carlier, berari begira, besaulkian eserita, imajinatu zuen; eta hain ondo lortu zuen, non, handik gutxira, ez zekien jada nor zegoen hilda eta nor bizirik. Irudimenaren lorpen harrigarri honek, ordea, harri eta zur utzi zuen eta ordu oneko gogo-ahalegin itzela egin behar izan zuen Carlier bihurtzetik garaiz salbatzeko. Bihotzak taupa egiten zion eta

gorputz osoan halako berotasuna sentitu zuen, iragandako arriskuari buruz pentsatu zuenean. Carlier! Astakirten alua! Aireak zeuzkan zainak lasaitu nahian –ez zen harritzekoa egoera horretan egotea–, txistu egiten saiatu zen. Baina ustekabean lotan gelditu zen, edo behintzat, hala iruditu zitzaion berari. Lainotuta zegoen eta norbait txistuka ari zen lainoaren erditik.

Begiak ireki zituen. Eguna zen eta laino lodia lurrean zehar hedatzen zen; laino sarkor, inguragarri eta isila; eskualde beroetako goizeko lainoa; gorputz barrura sartzen den eta hiltzen duen lainoa; laino zuri eta hilgarria, kutsugabe eta pozoitsua. Zutik jarri zen, gorpuari begiratu eta, besoak gorantz jasoz, oihu bat jaurki zuen (trantzetik iratzarrita, bere burua hilobi batean –betiko– aurkitzen duen gizonak botatakoaren pareko).

–Lagundu, ene Jainkoa!

Garrasi anker, dardarkor eta supitu batek tristeziaren herri hartako hil-oihala zeharkatu zuen gezi zorrotz baten antzera. Jarraian hiru txilio labur, egonezin; eta gero, alditxo batez, lainoaren kiribilek biraka segitu zuten patxadatsu, isiltasun harrigarriaren erdian. Gero, txilio azkar eta zorrotzak ugaritu egin ziren –izaki haserre eta errukigabe batek jaurkiak bezala–, lainoa urratu zutenak. Aurrerakuntzak Kayertsi deitzen zion ibai aldetik. Aurrerakuntza, zibilizazioa eta birtute

guztiak ari zitzaizkion deika. Gizarteak seme koxkortuari deitzen zion, alde egin zezan, berataz ardura zitezen, eskola zezaten, epai zezaten, zigor zezaten; atzean utzitako zaborreriara itzul zedin, zuzenbidea erakuts ziezazioten.

Kayertsek deia entzun zuen eta ulertu egin zuen. Galeriatik kili-kolo jaitsi zen, beste gizona – biak bertan bota zituztenetik– lehenbiziko aldiz bakarrik utziz. Lainoan zehar itsumustuka abiatu zen, zeru ikustezinari bere desesperoan oihukatuz: “Suntsi ezak nire lana!”. Makola laino artean igaro zen, korrika eta deiadar eginez:

–Baporea! Baporea! Ezin dute ezer ikusi. Faktoriari deika ari dira. Kanpaia joko dut. Jaits ezazu kaira, jauna. Ni joka ariko naiz.

Desagertu egin zen. Kayertsek geldi iraun zuen. Gorantz begiratu zuen; behelainoa jira-biraka zihoan, Carlierren buru gainetik. Bereak egin duen gizonaren antzera begiratu zuen bere inguruan; zirriborro ilun bat ikusi zuen, lainoaren garbitasun aldakorraren erditik sortua, gurutz itxurako zirriborro bat. Baporearen aldarri artegari erantzunez faktoriako kanpaia danga eta danga ari zen bitartean, bera gurutze alderantz hasi zen ibiltzen, bidean aldaroka.

Zibilizazio Konpainia Handiaren Zuzendari Gerentea (zeren, denok dakigunez, zibilizazioak merkataritzari jarraitzen baitio beti) lehorrera salto

egiten lehena izan zen eta urrats luzez urrunduz baporetik. Lainoa gero eta itxiagoa zen ibaitik behera; goian, faktorian, kanpaia joka eta joka ari zen, etengabe eta erlats.

Zuzendariak baporekoei deiadar egin zien ozenki:

–Inor ez duk gure bila etorri. Beharbada, zerbait gertatu duk, kanpaiak jotzen badu ere. Hobe zuek ere nirekin etortzea.

Gero, ibaira jaisten zen aldapa pikoa igotzeari ekin zion, nekez. Baporeko kapitaina eta makinaria haren atzetik zetozen. Igo ahala, lainoa desagertzen hasi zen eta Zuzendaria beraiengandik nahiko urrun zihola ikusi ahal izan zuten. Batean, urratsa azkartzen zuela ikusi zuten, eta haiengana bueltaturik deiadar egin zien:

–Azkar! Etxera! Bat aurkitu diat! Aurki ezazue bestea, azkar!

Bietako bat aurkitua zuen! Zuzendaria, nahiz bizipen ugariko eta zakarreko gizasemea izan, lazturik geratu zen aurkikuntzaren ostean. Zutik iraun zuen. Gero, poltsiko batean zeraman labanaren bila hasi zen, gurutzetik zintzilik zegoen Kayertsi begiratzeari utzi gabe, lepoa estutzen zion larruzko gerrikoa mozteko. Zirudienez, Kayerts hilobi altu eta estuaren gora igo, gerrikoaren punta bat gurutzeari lotu, eta beste punta bere lepoan

korapilaturik, jauzi egina zuen. Oinak lurretik zentimetro gutxira geratuak zitzaizkion; beso zurrinak erorita zeuzkan; ematen zuen tente-tente zegoela (soldaduak bezala). Masail gorri-belztua, ordea, sorbaldan sostengatzen zitzaion, txantxetan bezala. Zuzendari Gerenteari mihi handitua ateratzen zion, axolagabe.